

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	SEGURTASUNA ETA OSASUNA ESKU ETA OINETAKO ZAINKETA ESTETIKOETAN	Iraupena	70
Kodea	MF0356_2		
Lanbide-arloa	IRUDI PERTSONALA		
Lanbide-eremua	Estetika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Esku eta oinetako zainketa estetikoak	Maila	2
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko behar den gainerako prestakuntza	Azazkalak zaintzeko eta edertzeko teknika estetikoak	Iraupena	70
	Azazkal artifizialak		80
	Esku eta oinetako tratamendu estetikoak		60
	Esku eta oinetako zainketa estetikoetako lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator UC0356_2 ESKU ETA OINETAKO ZERBITZU ESTETIKOKO BEZEROARI SEGURTASUN-, HIGIENE- ETA OSASUN-KONDIZIOETAN ARRETA EMATEA gaitasun-atalarekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Larruazalaren eta haren eranskinen ezaugarri anatomofisiologikoak aztertzea, bezeroaren beharren eta eskaeren arabeko arreta emateko.
- E11.1 Bezeroaren esku eta oinen morfologia behatzea, haren beharretara egokitzen den teknika zehazteko.
 - E11.2 Larruazalaren eta haren eranskinen egitura deskribatzea eta egiten dituzten funtzioekin erlazionatzea.
 - E11.3 Larruazal-motak sailkatzea, tratamendu estetikoko teknika egokienak aplikatzeko.
 - E11.4 Azazkaletako zainketa estetikoko teknikak aplikatzeari eragiten dioten larruazaleko alteraziorik ohikoenak identifikatzea.
 - E11.5 Manikura- eta pedikura-tekniketan eragina duten azazkaletako eta azazkalen inguruko ehunetako alterazioak identifikatzea.
 - E11.6 Esku eta oinetako tratamendu-protokoloak alterazio estetikoen arabera prestatzea.
- A2: Azazkaletako eta esku nahiz oinetako larruazaleko zainketa estetikoetako tratamenduak egiteko aparatu, tresna, material eta osagarri egokiak hautatzeko irizpideak identifikatzea.
- E12.1 Manikura- eta pedikura-tekniketarako eta esku eta oinetako tratamendu estetikoetarako eskakizun teknikoak eta materialak zehaztea.
 - E12.2 Manikura- eta pedikura-tekniketan eta esku eta oinetako tratamendu estetikoetan erabiltzen diren tresnen eta aparatuen efektuak, erabilerak eta kontraindikazioak adieraztea.
 - E12.3 Esku eta oinetako zainketetan erabiltzen diren aparatuak behar bezala erabiltzeko eta kontserbatzeko jarraibideak adieraztea.
- A3: Manikura- eta pedikura-tekniketan erabiltzen diren instalazioak eta baliabide teknikoak garbitzeko, desinfektatzeko eta esterilizatzeko metodoak aztertzea, eta segurtasun eta higie pertsonaleko baldintzekin erlazionatzea.
- E13.1 Manikura- eta pedikura-teknika arriskutsuetan, osasunerako arrisku handiko gaixotasun infekziosoak (GIBa eta C hepatitisa) transmiti ditzaketen tekniketan, azazkalak moztean eta limatzean, adibidez, aplikatu beharreko segurtasun-arauak deskribatzea.
 - E13.2 Instalazioak eta baliabide teknikoak tratatzeko egokiak diren garbitzeko, desinfektatzeko edo esterilizatzeko metodo egokiak deskribatzea, materialen ezaugarriak, haien erabilera eta kontaminatzaile-mota ohikoenak kontuan hartuta.
 - E13.3 Tresnak eta aparatuak zer baldintzetan garbitu, desinfektatu eta esterilizatu behar diren zehaztea, metodo, denbora eta behar diren produktuei dagokienez.
 - E13.4 Zer tresna desinfektatu edo esterilizatu behar diren finkatzea.
 - E13.5 Behin soilik erabiltzekoa den materiala segurtasun-baldintzak betez botatzea.
 - E13.6 Manikura- eta pedikura-prozesuetan osasunerako arriskuen prebentzioa bermatuko duten babes-neurriak deskribatzea.
 - E13.7 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktikoa batean, ebakiak edo urratuak egin ditzaketen tresnak —aliketak, guraizeak, limak eta fresak— erabiltzean istripurik gertatuz gero lehen laguntzako neurriak hartzea.
- A4: Manikura- eta pedikura-tekniketan eta tratamendu estetikoetan erabiltzen diren kosmetikoen ezaugarriak eta jarduera-mekanismoak aztertzea.
- E14.1 Erabiltzen diren kosmetikoen oinarriko konposizioa azaltzea, osagaien funtzioak arrazoituz.
 - E14.2 Manikuran eta pedikuran erabiltzen diren kosmetikoen efektuak eta haien jarduera-mekanismoak erlazionatzea.

EI4.3 Kosmetikoak funtzioaren arabera sailkatzea.

EI4.4 Azazkal artifizialetarako kosmetikoen konposizioa, efektuak, erabilera eta kontraindikazioak azaltzea.

EI4.5 Erabiliko diren kosmetikoak haien konposizioaren eta ekintzaren arabera eta erabiliko den teknikaren eskakizunetara, larruazalaren ezaugarrietara eta bezeroaren egoerara egokitzuz hautatzeko irizpideak azaltzea.

EI4.6 Hala behar duten kosmetiko eta produktuak manipulatzeko oinarriko eragiketa fisiko-kimikoak trebetasunez egitea.

EI4.7 Kosmetikoen konposizioa alda dezaketen edo haien konposizioan eragin dezaketen ingurune-kondizioak zein diren adieraztea, eta behar bezala manipulatzeko eta kontserbatzeko jarraibideak zehaztea.

A5: Emandako zerbitzuaren kalitatea kontrolatzeko prozedura egokiak aplikatzea.

EI5.1 Higie-, manikura- eta pedikura-teknikak aplikatzean zer alderdi ebaluatu behar diren identifikatzea zerbitzuaren kalitatea eta bezeroaren gogobetetze-maila zehazteko.

EI5.2 Lortutako emaitzetan aurreikusitako emaitzekiko gertatutako desbideratzeak detektatzea eta aztertzea.

EI5.3 Zerbitzuan hutsuneak eragin ditzaketen kausa teknikoak edo bezeroarenganako arreta pertsonalekoak zerrendatzea.

EI5.4 Zerbitzuko hutsuneak zuzentzeko eta emaitzak optimizatzeko neurriak proposatzea.

EI5.5 Esku eta oinak edertzeko prozesuetan arriskuak prebenitzeko eta ingurumena babesteko zer arau aplikatu behar diren deskribatzea.

Edukiak

1. Gizakien gorputz-adarren oinarriko anatomia eta fisiologia.

- Gorputz-adarrak: Hezurak eta artikulazioak. Muskuluak. Goiko eta beheko gorputz-adarren baskularizazioa eta inerbazioa.
- Larruazalaren eta eranskinen anatomia eta fisiologia. Egitura: epidermisa, dermisa. Baskularizazioa eta inerbazioa.
- Larruazalaren funtzioak: babeslea, immunitarioa, irazlea, sensoriala, termorregulatuzaile metabolikoa.
- Esku eta oinen ezaugarriak: elementu bereizgarriak.

2 Esku eta oinetako zainketa estetikoekin erlacionatutako larruazaleko eranskinak.

- Azazkalak: egitura, konposizioa, funtzioak eta propietateak.
- Iraitz-guruinak:
 - Izerdi-guruinak. Motak, egitura, funtzioak.
 - Sebo-guruinak. Egitura eta funtzioak.
- Emultsio epikutanea

3 Larruazalaren eta esku eta oinetako eranskinen alterazio estetikoak.

- Larruazaleko alterazio estetiko adierazgarrienak: Hidratazio-alterazioak. Baskularizazio-alterazioak. Keratinizazio-alterazioak. Pigmentazio-alterazioak. Izerdi-alterazioak. Sintomak eta kausak.
- Azazkaletako eta azazkalen inguruko ehunetako alterazioak:
 - Azazkalaren gorputzekoak.
 - Azazkalaren inguruko ehunekoak.
 - Sortzetiko eta hartutako malformazioak.
 - Infekzio-jatorria duten azazkalaren inguruko alterazioak.
- Esku eta oinetako narradura-erreakzioak eta erreakzio alergikoak.
- Manikura eta pedikura egiteko neurri bereziak hartzea eskatzen duten gaixotasunak: diabetesa, hepatitisa, GIBa eta abar.
- Eskuetako larruazala eta larruazala zahartzeko prozesua.
- Tratamendu medikoa behar duten esku eta oinetako alterazioen identifikazioa. Hiperhidrosia Dishidrosia Ospelak Psoriasis. Ekzema Beste batzuk.
- Kontuan hartu beharrekoak.
- Larruazalaren eta eranskinen egoeran elikadurak duen eragina.
- Esku eta oinetako azazkal eta larruazaleko zainketa estetikoaren protokoloak.

4 Esku eta oinetako zainketa estetikoetan erabiltzen diren ekipoa

- Efektu fisiko-kimikoko aparatua: langarreztagailuak, duxak, bentosak, eskuila birakariak, bibragailuak, berogailuak eta abar.
- Maiztasun handiko eta ertaineko korrante zuzen eta aldakorreko ekipoa.
- Erradiazio infragorrien ekipoa.
- Erabilera-arauak, efektuak, kontuan hartu beharrekoak, jarraibideak eta kontraindikazioak.
- Tresnak eta materialak: aliketak, limak, ontziak, guraizeak, kotoi-txotxak, hatz-bereizgailuak, toallak eta abar.
- Tamaina eta forma desberdinetako fresak dituen manikura-tornua.
- Erabili eta botatzekoak ez diren tresnetarako esterilizagailua.

5 Segurtasun-, osasun- eta lehen laguntzako neurriak esku eta oinetako zainketa estetikoetan.

- Higienaren, desinfekzioaren eta esterilizazioaren kontzeptuak.

- Edergintza-aretoko kutsatzaile-mota ohikoenak: instalazioak, aparatuak, tresnak eta materialak. Kimikoak. Biologikoak.
- Mikroorganismo kutsatzaile ohikoenak esku eta oinetako zainketa estetikoetan. Onddoak. Bakterioak. Birusa
- Transmiltzeko eta kutsatzeko bideak.
- Manikuran eta pedikuran transmiti daitezkeen gaixotasun infekziosoak: hepatitis, GIBa eta abar.
- Prebentzio-neurri espezifikokoak.
- Esku eta oinetako zainketa estetikoetan erabiltzen diren aparatu, tresna eta material fisiko eta kimikoei aplikatutako higiene-, desinfekzio- eta/edo esterilizazio-metodoak.
- Esku eta oinetako zainketa estetikoetan erabiltzen diren esterilizazio-ekipoak.
- Esku eta oinetako zainketa estetikoetan erabiltzen diren aparatu, tresna, kosmetiko eta produktuak maneiatzeko segurtasun- eta higiene-arauak.
- Arriskuak prebenitzeko bezeroa eta profesionala babesteko neurriak.
- Esku eta oinetako zainketa estetikoetako prozesuen praktikari aplikatutako ergonomia.
 - Manikura- eta pedikura-zerbitzuak ematean jarrera-higieneak duen garrantzia.
 - Manikura- eta pedikura-zerbitzuak ematean altzari ergonomikoek duten garrantzia.
- Manikura- eta pedikura-prozesuetako istripurik ohikoenei aplikatzen zaizkien lehen laguntzak.
- Indarrean dagoen estetika-zentroetako guneei, instalazioei eta aparatuei buruzko araudia.

6 Esku eta oinetako zainketa estetikoetan erabiltzen diren kosmetikoak

- Kosmetikoak: definizioa, konposizioa eta sailkapena.
- Forma kosmetikoak.
- Larruazalaren iragazkortasuna eta kosmetikoen jarduera-mekanismoak.
- Azazkalen zainketa estetikoetan erabiltzen diren kosmetikoak: sailkapena, konposizioa, printzipio aktiboak, jarduera-mekanismoak, erabilera, kontuan hartu beharrekoak, kontraindikazioak eta hautatzeko irizpideak. Berniz-kentzekoak. Kutikula zaintzeko bigungarriak eta keratolitikoak. Babes-oinarriak. Gogorgarriak. Bernizak. Kosmetiko lehortzaileak. Berniz-babesak. Distira-emaileak.
- Azazkal artifizialak egiteko, fabrikatzeko eta aplikatzeko produktuak eta kosmetikoak: sailkapena, konposizioa, printzipio aktiboak, jarduera-mekanismoak, erabilera, kontuan hartu beharrekoak, kontraindikazioak eta hautatzeko irizpideak.
 - Azazkal naturala prestatzeko kosmetikoak.
 - Itsasgarriak. Disolbatzaileak.
 - Katalizatzaileak. Gelak.
 - Hauts akrilikoa edo portzelanazkoa. Beira-zuntzeko orriak.
 - Azazkal artifizialeko puntak edo *tīpak*. Moldeak edo euskarriak.
- Esku eta oinetako zainketa estetikoetarako kosmetikoak: higiene-kosmetikoak, kosmetiko hidratatzaileak, nutritiboak, babesleak, despigmentatzaileak, keratolitikoak/esfoliatzaileak, basotonikoak eta kongestioa kentzekoak, izerditzekoak eta abar.
- Produktuak eta kosmetikoak kontserbatzea eta biltegitzea. Inguru-kondizioak. Agente kutsatzaileak.
- Esku eta oinetako zainketa estetikoetan aplikatutako kosmetikoek eragindako erreakzio kaltegarriak.
- Hondakinak tratatzeko arauak.

7 Esku eta oinetako zainketa estetikoaren zerbitzuen ebaluazioa eta kalitate-kontrola

- Kalitatearen kontzeptua.
- Manikurako eta pedikurako zerbitzuen ebaluazioa eta kalitate-kontrola.
- Estetika-areto bateko edo ile-apaindegi bateko zerbitzuaren kalitatea definitzen duten parametroak.
- Bezeroaren gogobetetze-maila neurtzeko teknikak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-erlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatara sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Esku eta oinetako zainketa estetikoak.